

| | |
|------------------------|---|
| Izenburua | <i>Eskolaz kanpo, aisian aise! (Tribuaren Berbak)</i> |
| Formatua | Sekuentzia didaktikoa |
| Egilea | Kike Amonarriz, Iñaki Retegi, Josune Zabala eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa. |
| Nori zuzendua | DBHko ikasleei |
| Helburuak | Eskola ordutik kanpoko jardueretan eta, batez ere, kultur kontsumoan euskarak duen presentzia eta egoera aztertzea. |
| Metodologia | <p>Metodologia kooperatiboa: ikasten ari diren berdinaren arteko interakzioa garrantzitsua da benetako ideien elkartrukea eta eztabaida sustatzeko; hau da, adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatzeko. Beraz, lan eta esfortzu indibidualaz gain, talde lana funtsezkoa da, gizabanakoak besteekin elkarri eragiten ikasten baitu.</p> <p>Ikasketa kooperatiboa honako printzipioetan oinarritzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkardependentzia positiboa. • Aurrez aurreko interakzioa. • Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa. • Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa. |
| Denboralizazioa | 8 saio |
| Eranskinak | <p>Materiala eskuragarri:</p> <p>https://tribuarenberbak.asmoz.org/01-jarduera9.html</p> |
| Oharrak | <ul style="list-style-type: none"> • Sekuentziaren lanketa egiteko beharrezkoa den material guztia sarean eskuragarri dago: sekuentziak, lan-koadernoak eta irakaslearentzako gida didaktikoak. • <i>Tribuaren Berbak</i> 10 sekuentzia biltzen dituen sekuentzia didaktiko sorta da. Irakasleak erabaki dezake material horietako bakarra, batzuk edo denak erabiltzea. Sortzaileen aldetik, egokia ikusiko lukete DBHko maila bakoitzean 3 sekuentzia erabiltzea (ebaluazio bakoitzeko bat, adibidez). |

